# Ijitoak eta ijitokeriak

Urruzuno gora eta Urruzuno behera jardun gara euskaltzaleok. *Egia esan, zor zitzaion euskal-idazle honi horrenbeste aipamen.* Idazle honek, ordea, ijitoak eta ijitokeriak bururazi dizkigu.

Begitan ditugu gehienok ijitoak. Gaiztotzat, alfertzat, gezurtitzat eta lapurtzat jotzen ditugu.

Egiatzat daukagu harako ipui hura: Behinola ijito bat omen zijoan bere semearekin erri inguru batean. Halako batean ihes egiten dio semeak aitari ondotik. Handik laster oiloarekin azaltzen da. "Begira, aita, zer aurkitu dudan". "Oso ondo, seme" erantzuten dio aitak, oiloa zakuan sartzen duen bitartean. Berriz ere *izkutalditxoa. Bi kilo burni dakazki. "Oso ondo seme"* eta zakura burni puskak ere. Irugarrenean aitzurra dakarkio. "Begira, aita, zer aurkitu dudan". "Seme, hau ez da gurea, honek badu bere jabea; uztazu lehengo lekuan", erantzuten dio oraingoan.

Honelakotzat jotzen ditugu ijitoak. Eta ijitoa batez ere askatasuna maite duen norbait dugu. Bizitzeko mila lan egiten dituen norbait: otarrak, tratuak, sal-erosketak, albaiterotza, ile-mozteak, konponketak...

**Ijito-erria orain dela mila urte eta gehiago Indiatik ihes egindako erria da.** Haruntz eta honuntz ibilian dabilan erria. Ohitura bereziak, izkera berezia, sineskeria bereziak, izaera berezia dituen erria.

Amalaugarren menderako iritxi ziren Greziaraino. Aragoi Erregediko agiri batek dioenez baziren Espaiñian ijitoak 1425garrenerako.

Amairu-amalau milloi ijito dabiltza mundu zabalean edaturik. Ogei urte baino lehenago iltzen dira % irurogeiren bat. %tik 6 *ijitok ez ditu berrogeita amar urte betetzen.*

Hauek dira itz bitan esanik ijito jatorraren aztarnak.

Baina, egia esan, bada gure artean jatorri hontako ez den beste zenbait ijito. Egiazko ijitoen alderdi txarrak bakarrik jaso dituen zenbait ijito. Asko ugaltzen ari da gainera gure artean ijito-mota berri hau. Ezin konta ahalak dira berauen ijitokeriak. Izkutuan eta atzetik egin ohi dituzte gainera lehengoen antzera, gehienetan. Luzea bait da gure artean aspaldidanik gaua.

Azalez bereizten ez eta ez da erraz bertso batez ezaugarri guztiak ematen. Baina bada ijitorik gure artean.

Kolpe santurik egin ez eta besteei alferra deitzen dion ijitorik edo atzeratua deitzen dionik. Otordu, festa, ibili eta gau-pasa goxo asko egin eta kostata zerbait aurreratu duenari burges deitzen dionik. Gurasoen izerdiaren kontura ikasten edo denbora pasa ibili eta gurasoen burgeskeriaz eta langileen zapalketaz mintzatzen denik.

Besteren lanari baliia kentzen dion ijitorik. Lagunak ohostutzen dituenik. Liburuak, aldizkariak, anuntzioak, ideiak, buruzagitzak, famak, arpideak... lapurtzen dituenik.

Bada "erbiaren ordez katua" saltzen duen ijitorik. Gain-itxura eta azal dotorez, eroslearen aukerakoz, alegia, zerbait ziri sartzen dakienik. Albaitero jakinduriaz, zaharra eta ajeduna, gazte eta berri itxuran saltzen dakienik. Alde aldeko eta bestearen galeran berriak barreiatzen dituenik. Aurrerakoitasun eta askasunaren izenean bihotz barruetatik euskal sentipen guztiak kentzen saiatzen denik. Euskal ukenduz desberdintasunaren eta zapalkuntzaren zauriak estaltzen eta goxatzen ahalegintzen denik.

Bada erria ahotan artu eta nork bere iritziak, interesak, egoskorkeriak, setakeriak eta beste keria guztiak aurrera atera nahi dituen ijitorik. Zenbait iritzi, jokabide, asmo eta lotura batzarkideei izkutaturik, taldearen, batzarraren, erriaren erabaki demokratikoa zela edo dela esanaz dabilenik. Egiazko eta beharrezko iraultzaren izenean sesioa, saltsa, ixkanbila eta konttua besterik nahi ez duenik.

Nork sala eta, urrunarazi, giltzapera eta izkutarazi litzazketen ijito eta ijitokeria berri hauek! Gehiegi luzatzen ari den gauaren erruz, agian, baina aitor dezagun ijitoak garela eta ijitokerian gabiltzala erriaren galeran.

# AZTERKETA BILDURGARRI BAT LAPURDIRI BURUZ

*Pierre Laborde jauna Geografi-erakasle dago Bordaleko Unibertsidadean; eta, bestetan ere ikutua duen ikergaiari ekinez lan bikain bat eskaini digu berriro. (Ikus «L'appropriation foncière des Parisiens dans une région de villégiature: la Côte Basque française» / Revue Géographique des Pyrénées, tome 41, 1970).*

*Pierre Labordek 30 herriren ikerketa egin du. Itsasertza duten herriak daude batetik (Angelu, Miarritze, Getharia, Donibane, Ziburu, Urruña eta Hendaia); eta ia-ia Lapurdiko gainerako guztiak (Baionatik hasi, eta Lehontza, Mugerra, Jatsu, Halsu, Kanbo eta Itsasu-raino). Beraskoitze, Urketa, Luhosoa eta Hazparne, esate baterako, ez ditu bere azterketan sartu; baina, gutxi gora-behera, egin duen azterketa Lapurdiko egoerari buruzko azterketatzat har daiteke.*

*Beste ohar bat: Labordek* Paristarren *eragina bilatu du bereziki; eta oso zehaztasun gutxi ematen du beste hirietakoaz. Zerbait eman du, halere; eta eman duen apur horrek argi handia ematen du Paristarrei buruz diona, zabalera handiagoaz ikusteko.*

*2.580 paristar ondasun-jabe aurkitu ditu Labordek Lapurdin. Horietatik 109-k, 60.000 m.² baino lurralde zabalagoak dituzte.*

*Hona hemen Paristar jabeen kopuruaren arabera ilaran jarriak ondasun horien gorabeherak:*

Paristar jabeen kopurua

| | |
|---|---|
| *1.—Miarritze ... ... ...* | *601 jabe* |
| *2.—Angelu ... ... ...* | *403* |
| *3.—Donibane ... ... ...* | *375* |
| *4.—Hendaia ... ... ...* | *185* |
| *5.—Baiona ... ... ... ...* | *170* |
| *6.—Bidarte ... ... ...* | *169* |
| *7.—Ziburu ... ... ... ...* | *151* |
| *8.—Urruña ... ... ...* | *115* |

*Paristarron ondasunen* zabaleraren *arabera, berriz:*

Paristarren eskuetako zabalera

| | |
|---|---|
| *1.—Urruñan ... ...* | *4.880.000 m.²* |
| *2.—Ziburun ... ...* | *3.110.000* |
| *3.—Donibanen ...* | *2.630.000* |
| *4.—Bidarten ... ...* | *1.380.000* |
| *5.—Angelun ... ...* | *1.310.000* |
| *6.—Miarritzen ...* | *950.000* |
| *7.—Baionan ... ...* | *680.000* |
| *8.—Hendaian ...* | *300.000* |

*Baserri asko duten herrietan, antzinako euskal foruen joerak geldiarazi du aldakuntza. Urruñak, esate baterako, Donibaneren eta Hendaiaren artean, herriaren beraren eskuetan atxiki ditu bere lurralderik gehienak jabego «komunal» gisa: bi heren gutxi gora-behera. Baina hiritartuago dauden herrietan (kostaldekoetan batez ere) izpiritu hori galduago da, lurraldeak pribatu bihurtu dira (herriarenak izan beharrean), eta deskalabroa aurrerago joan da. Ziburun batez ere.*

Lurraldeen partea

| | |
|---|---|
| *1.—Ziburu ...* | *% 41,1 paristarren eskuetan* |
| *2.—Donibane .* | *% 13,7* |
| *3.—Bidarte ...* | *% 11,1* |
| *4.—Getharia .* | *% 10,6* |
| *5.—Urruña ...* | *% 9,7* |

*Hau guztia, ordea, PARISTARREI buruzko datoak dira.*

*Fraintziako beste hirietako jabeei buruz ez du Labordek ezer handirik eman; baina hau dio: «Pour les communes du littoral da propriété parisienne représente de 18 % à 42 % de la propriété foraine» (= kostaldeko herriei dagokienez, paristarren jabegoa KANPOTAR GUZTIEN JABEGOAREN % 18-tik %-42-ra doa). Eta ekiten: «Partout les parisiens possèdent moins de biens que les personnes qui résident dans les régions Aquitaine et Midi-Pyrénées, exception faite toutefois de la ville de St. Jean de Luz». Hegoaldeko frantsesek, hitz batez, Bordalekoek, Tolosakoek eta abar, GEHIAGO DUTE PARISTARREK BAINO.*

*Labordek Paristarrei buruz ematen dituen zifrak, beraz, anitz handitu behar dira KANPOTARREN JABEGOAZ hitzegin ahal izateko. % 42 horri 2,38 dagokio, eta % 18-ri 5,55, herrien arabera. Kasorik gehienetan, beraz, HIRUKOITZ eta LAUKOITZ irakurri behar lirakeala zuzena da. Lapurdiko lurraldeak ez daude lapurtarren eskuetan.*

*Nortzuk dira, bestalde, Lapurdiko lurraldeez jabetu diren horiek? Labordek dato bikainak eman ditu. Jabeen laurden bat Paris-ko «XVI arrondissement» delakoan bizi dira (burges eta aiton-semeen hauzoa, jakina denez); eta beste mordo handi bat, 118 handiki, Neuilly sur Seinen: Windsor-ko Dukea, esate baterako. bizi zen hauzoa, «XVI» delakoa bezain dotore.*

*Lapurdi, beraz, Labordek frogatzen duenez, frantses burgesiaren bakantza-leku bihurtua da. Ez da hau gerta daitekean zerbait, baina zeharo gertatua den egia latza.*

*Artean lanik ez, gazteek atzerrira jo behar, eta bertako handikiak axaleko sasi-arazoez arduraturik.*

*Bagenuke euskaldunok horretaz guztiaz gogoeta franko egitekorik, nik uste.*

*LARRESORO*

# ETORKIZUNA EGITEKO

Denok irakurri izan *ditugu behin* edo behin eguneroko eta aldizkarietan, baiña behar bada ez gara diferentziaz ongi ohartu. Eta badago noski diferentziarik. Begira. Batek galdera gisa idatziko du: «Nolakoa izango da urte berri hau?» Beste horrek berriz ez du galdegingo, seguru joko du, hola idatziz: «Urte *berria nolakoa izan*go den». Antzekoak dirudite, bai. Axalean dizue antza. Borroka barrendik. Lehenengoa umilla da, galdezka dabil, zerbaiten billa, jakin nahiean. Bigarrenak ordea dena badaki, arroa da, bere jakituria eskuratzen digulako eskerrak eman beharrean gara. Gora zu!

*Horra bada etorkizunaren aurrean* bi pentsamolde nabarmen.

Mundua berez doa bere bidetik. Lasai, mutillak. Dena egiña zegok. Ez dek iñondik ere ezer aldatzerik. Fatalismoaren apostoluak dira. Etsipenaren zabaltzaileak. Izarren tankeran ibiltzen da guztia. Arria beherako nola etortzen da? Halaxe *dena ere. Sagarra zorituko* da, zoritzekoa baldin bada. Ez dago behartzerik, indarka ibiltzerik. Aho zabalka, goazen guztiok lotara.

Fisika-legeak eta giza-legeak ez dira gauza berdiña. Denborak, inguruak, giroak, ezin uka, asko lezakete. Baiña gizona ez da arria. Historia gizonek egiña da. Ekono*mia ez daramate indar itsuek.* Politika izan liteke nahiz honelako nahiz halako. Ola eta lantegietan derrigorrezkoa dute makiñek zentzu jakiñean aritzea, gizonen mende halare. Industrian agindu eta arau batzuek edo-ta zeharoko etsai zaizkien beste batzuek ezar daitezke. Kaleak modu hontara eta milla *modutara garbi* eta pinta ditzakegu. Eta orobat arpegiak, etxeak, elizak, herriak, mundua eta kosmoa bera ere. Esperantzetan bizi direnak hola mintzatzen dira. Gehienak, nik uste.

Aspaldi hartan aski famatua gertatutako liburu bat argitara eman zen, «Pour faire l'avenir», frantse*sez egiña, gaztelaniaz* «Hacia un porvenir mejor» idazpuruz itzulia. «Etorkizuna egiteko», alegia. Izenak berak nahikoa adierazten du. Etorkizuna egin daiteke. Egin behar dugu. Egin behar dugu saiatu, ederki nekatu, klase arteko arreman zuzenagoak eta mundu obea lortzeko. Itz horietan bil genezake *egillearen* pentsamentua.

Orain lau bat urte Mendès-France politikoaren «Pour préparer l'avenir» izenekiko liburuxka agertu zen, gaztelaniaz «Preparando el porvenir» izenpean jarria. «Etorkizuna gertutzeko» esan dezagun.

Bi liburuok aipatu nahi izan dizkizuet izenean zerikusi eta lotura *bizikoak direlako*, bat auzi sozialari eta bestea politika ekintzari buruzkoak izan arren. Iruditzen baitzait batez beste eta oro har gure mendeko jendeen giroa eta pentsamoldea poliki xamar jasotzen dutela, egia hau garbi eta argi, argi eta garbi aitortuz: etorkizuna giza-gauza da, geurok egin beharra.

Honen ondoren nahitaezkoa da futurologiaren, geroaren zientziaren, gerogintzaren aipamen labur bat egitea. Plangintzaren umea da, diotenez, sasikoa ala *jatorra ez orain*dik jakin. Dena dela, horien erroa eta zimentua gizonaren nahi librea duzue, ez arriaren erorkera, ez sagarraren eltzea.

*Aldaketa* mundua baita hauxe. Sokatira enparantza. Truke etxea. Egiña ez dago ezer. Buruturik eta borobildurik ezer ez dago. Giza-kemenaren eta *ahalegiñaren zai* baizik. Emazu eta emango zaizu. Hau da legea eta profetak.

I. BUJANDA

# *Euskal Galetan Barna*

# URTEMUGAN

Ohean nagoelarik (ni ere gripe ingelesa madarikatu horrek ohean etzanik eduki nau), pentsatzen aritu naiz iragan urtemugan gertaturiko gauza batzuetaz. Denetarik izan dugula, dudarik ez.

«Nafarroako Aldundia euskeraren alde», irakurri dut erdal egunkari*etan. Zenbait milloe emango omen* dutela eta arduratuko direla euskera zaintzen «zonas vascófonas» direlakoetan.

Klaro, hemen arazo bat sor daiteke: Zer da «zona vascófona»? Zer kriterioz baliatuko dira lurralde bat «zona vascófona» den ala ez erabakitzeko? Pentsa dezagun *ezen Nafarroan lortu dena Araban* lortuko balitz, Gasteiz, guretzako dudarik gabe behintzat, «zona vascófona» beharko litzakeela izan, bertan bizi baitira hamabi milla euskaldun, bataz beste. Dena den, pauso handia Nafarroan emandakoa. Esan beharrik ez, alde hontako beste hiru Aldundientzako na*hi genukeela holakorik.*

Eta aldundietaz ari garelarik, berri pozgarri bat badugu Gasteiz aldetik ere. Horren berri izango duzu, irakurle, Euskaltzaindiko azken batzarraren agiria irakurri baduzu. Hain zuzen, Euskaltzaindiko azken batzarrean Arabako euskaltzain laguntzailleetako bat den Patxi Uribarrenek Arabako Aldundi Forudunak euskeraren alde lan egiteko gogoen berri eman zuen. Zertan dauntza gogo horiek? Lehendabizi, «transporte» delakoari gagozkiolarik, ikastoletako eta «escuelas concentradas» direlakoetako umeak mailla berberean izango dira. Erabaki *hau martxan dago, jakin ahal* izan dugunez, Vitoria Irratiko euskerazko programaren bidez. Bigarrenik, parvulario bat izango dutela Aramaion, eta parvulario horren gastoak (behar den materiala, andereñoak eta abar) Arabako Aldundi Forudunak bere gain artuko dituela. Bestaldetik ikastola berria *eraiki nahi dute eta lur sail edo* terrenoen billa badabiltza. Eta azkenik, erdal eskoletan nahi duten guztiei aukera emango zaie euskeraren ikasi ahal izateko. Ez dakit beste zerbait izango denik: aipatu ditudanak dira, behintzat, gogora datozkidanak. Aurrera arabarrok eta ea noiz ikusten dugun *honelakorik Bizkaian eta Gipuzkoan.*

Urtemugan ere, liburu baten itzaurreak nahiko zarata egin zuen. Euskaldunok, dudarik ez, millaka txorakeria entzuteko jaioak. Dena den, itzaurreak izan du arrapostu egokia, Mitxelenarena.

Izan ere, arlo batzutan zaillago da Mitxelena bati ziria sartzen. Halaz ere, gauza batzu erantzunik *gabe gelditzen da. Izan ere,* zenbait tesisa tarteko delarik, ez gaude, ez horixe, egoerarik egokienean tesisa haiek merezi duten erantzuna emateko, eta ez erantzunkaitz direlako.

Esan dezadan, ordea, zenbait gauza. Euskera, itzaurrearen egillearen ustez, zeharo katsatua, ideologizatua dago (?), *euskal burgesia* oligarkia klerikal txobinistaren ideologiaz, alegia. Haranburu Altunaren ustez, ezin da Kardaberaz baten euskeraz baliatu sozialismori buruz idazteko. Teoria zaharra da; euskera atzerakoi Kardaberazek badu, eta aurrerakoia sozialista batek erabiltzen badu. Hau izan da atzerako askoren tesisa nagusia, baina ez da gaurko gure kontua honetaz aritzea.

Aita Kardaberaz kontuaren arira *bihurtuz, Haranburuk ez du Aita* Kardaberaz halako idazle aurrerakoitzaz jotzen, bere ikuspegi progresistatik. Gauza asko esan genezake honetaz, bainan sinpleena aukeratuko dut: Haranburuk iñoiz Kardaberazen, lerrorik irakurri baldin badu, gaizki irakurri duela uste dut. Kardaberazen lumari euskera *herrikoia dario (bere akatsak eta* guzti); Kardaberaz, nik dakidanez, ez zen halako purista edo garbizale horietakoa; eta nik, arabarra naizenez, badakit Aita Kardaberazen garaian zeinek salatu zituen Araban egiten ari ziren euskeraren kontrako ekinaldiak, gure Arabako eskoletan umeak, euskeraz *egiteagatik, makillatzen zituztela*rik.

Kardaberazek berak! Haranburu Altunak eman behar digu erantzuna: bada garai hartan euskeraren alde *agertzea zen euskal burgesia* olikarkia klerikal txobinistaren alde agertzea, omen.

Badakizuenez, errusuek izigarrizko buruausteak izan omen dituzte, 1917 urtearen aurreko errusiar izkuntza, errusiar burgesia oligarkia klerigal txobinista inperialista eta zaristaren ideologiaz kutsatua, desideologizatzeko. Ja!

Bestaldetik, betiko clichea: «herriaren beharrei erantzuten dien zerbait izan behar du literaturak». *Eta zeinek esango zeintzuk diren* herriaren beharrak? Zer ideologiaz? Beraz, euskera desideologizatu (?), baina gero ideologizatzeko (mantxatzeko), benetako iraultza eginaz. Eta zer ideologiaz? A!

Bukatzeko, oso ona itzaurrearen amaieran ematen den definizioa. Zeharo demagogikoa da, baina tira... Iñun enuke arkituko literatura panfletarioaren definizio zehatzagorik.

Goazen beste gai batera: oso interesgarria, goi maillakoa, Urtarrillaren 10ean eta 11n, Información y Turismoko aretoan izan ziren itzaldia eta mahai-ingurua, gaia «Los condicionantes del futuro desarrollo de la economía vascongada» zelarik. Garrantzi handiko gauza eta arazo asko sortu zenez gero, luzeegi litzaiguke hemen banan-banan ematea. Horrela izanik, utziko dugu gaurkoz. Bidenabar esan behar diot Jenaro Garateri ezen berarentzat, antza, topiko den asko sortu zela itzaldi eta mahai-inguru haietan. Eta eskerrak izlarietako batek edo bestek erakunde ofizialetan lan egiten dutela, bestela topiko gutiagorekin gelditu ginakeen.

*Gauden kondizioetan, herri* kontzientzia dugu ia-ia bide bakarra, geure arazoei aterabideren bat ematen saiatzeko. Eta geure gaurko zenbait arazoz *herri* kontzientzia biztu nahi dugun tenorean, badatorkigu baten bat esatera gure ekonomiaren larritasuna topiko bihurtzen ari dela. Hori argi eta garbi kanpokoa den batek ez da harritzeko, bainan etxeko batek... Faborez...

*Gorka Knörr*